**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2019/03/27
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 19:20

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Inzunza jauna eta Ruiz andrea gai ordenaren bigarren puntuan batu ziren. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. El Sr. Inzunza y la Sra. Ruiz se incorporaron a partir del segundo punto del orden del día. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2019ko otsailaren 27ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 27 de febrero de 2019.

**2.- Alkatetza Dekretuak.-**

Ondorengo alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion Udalaren Osoko Bilkurari:

- 7/19, zeinaren bitartez 81/18, 11/19 eta 12/19 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren.
- 8/19, zeinaren bitartez Altamira 22an, ispilu bat jartzeko lizentzia eman den.
- 9/19, zeinaren bitartez 15/19 espedienteko hirigintzako lizentzia eman den.
- 10/19, zeinaren bitartez 2018ko azaroaren 22ko Dekretua berresten den.
- 11/19, zeinaren bitartez 18/19 espedienteko hirigintzako lizentzia eman den.
- 12/19, zeinaren bitartez 19/19 espedienteko hirigintzako lizentzia eman den.
- 13/19, zeinaren bitartez 13/19 eta 16/19 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren.
- 14/19, zeinaren bitartez Axpe auzoko 109 A partzelan baimen gabeko lanak egin direnaren berri ematen den.

**2.º.- Decretos de la Alcaldía.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:

- N.º 7/19, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 81/18, 11/19 y 12/19.
- N.º 8/19, por el que se concede la licencia para colocación de espejo, en Altamira, 22.
- N.º 9/19, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 15/19.
- N.º 10/19, por el que reitera el Decreto de 22 de noviembre de 2018.
- N.º 11/19, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 18/19.
- N.º 12/19, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 19/19.
- N.º 13/19, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 13/19 y 16/19.
- N.º 14/19, sobre obras sin licencia en la parcela 109 A del barrio de Axpe.

**3.- 2019. urteko Aurrekontu Orokorra.-**

Kontuan hartuta 2019 ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren onarpenak hasitako espedientea, diru-sarreretan eta gastuetan orekatua; kontuan hartuta Idazkari-Kontu Hartzailearen aldeko txostena; Osoko Bilkurak, aho batez onartu zuen:

**3.º.- Presupuesto General del año 2019.-**

Visto el expediente incoado para la aprobación del Presupuesto General correspondiente al ejercicio 2019, nivelado en ingresos y gastos; visto el informe favorable emitido por el Secretario-Interventor; el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

Lehenik: Behin-behinean onartzea, kapituluetan banaturiko ondoko laburpenaren arabera:

Primero: Aprobarlo inicialmente, con el siguiente resumen por capítulos:

**DIRU-SARREREN EGOERA / ESTADO DE INGRESOS**

| | |
|---|---|
| a) Eragiketa arruntak / Operaciones corrientes | |
| 1.-Zerga zuzenak / Impuestos Directos | 203.437,64 € |
| 2.-Zeharkako zergak / Impuestos Indirectos | 65.001,64 € |
| 3.-Tasak eta bestelako sarrerak / Tasas y otros ingresos | 204.029,13 € |
| 4.-Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 1.302.483,48 € |
| 5.-Ondarezko diru-sarrerak / Ingresos patrimoniales | 12.751,77 € |
| OROTARA / TOTAL | 1.787.703,66 € |

**GASTU EGOERA / ESTADO DE GASTOS**

| | |
|---|---|
| a) Eragiketa arruntak / Operaciones corrientes | |
| 1.-Langileria gastuak / Gastos de personal | 530.386,05 € |
| 2.-Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak / Gastos en bienes corrientes y servicios | 812.615,26 € |
| 3.-Finantza gastuak / Gastos financieros | 6.291,23 € |
| 4.-Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes | 131.729,15 € |
| b) Kapital eragiketak / Operaciones de capital | |
| 6.-Benetako inbertsioak / Inversiones reales | 267.915,13 € |
| 7.- Finantza pasiboak / Pasivos financieros | 38.766,84 € |
| OROTARA / TOTAL | 1.787.703,66 € |

Bigarrenik.- Espedienteari erantsitako Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea.
Hirugarrenik.- Espedienteari erantsitako 2019rako aurrekontutxantiloia onartzea.
Laugarrenik.- Jendaurrean jartzea iragarki-taularen, udal-webgunearen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bitartez, 15 egun baliodunez; epe horretan, bizilagunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Osoko Bilkurari.
Bosgarrenik.- Onarpen-akordio hau behin betikotzat joko da, jendaurrean egon bitartean erreklamaziorik aurkeztu ezean.

Segundo.- Aprobar la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria que consta incorporada al expediente.
Tercero.- Aprobar la plantilla presupuestaria para 2019 que queda incorporada al expediente.
Cuarto.- Disponer su exposición al público a través del tablón de anuncios, web municipal y Boletín Oficial de Bizkaia, por plazo de 15 días hábiles, durante los cuales se podrán presentar las reclamaciones que se tengan por convenientes ante el Pleno Municipal.
Quinto.- Este acuerdo aprobatorio será considerado definitivo de no producirse reclamaciones durante el período de exposición pública.

**4.- EH Bilduren proposamena, basogintzari buruz.**

**4.º.- Propuesta de EH Bildu sobre trabajos forestales.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen EH Bilduko Zinegotzien hurrengo proposamena:
Busturian baso eta zuhaitz landaketen artean 1.400 hektarea inguruko azalera dugu eta horren %3 jabego publikokoa da. Baso eremu publikoetan, administrazioen ardurak dira interes orokorrari erantzutea eta baliabide naturalak zaintzea. Interes orokortzat besteren artean, uraren kalitate ona mantentzea, airearen garbitasuna, lurraren egonkortasuna eta emankortasuna, suteen kontrako gaitasuna, bioaniztasuna, paisaia naturalak, nekazaritza iraunkorraren egiturari eusteko baso-zelai

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar la siguiente propuesta de los Concejales de EH Bildu:
“En Busturia contamos con una superficie aproximada de 1.400 hectáreas entre bosques y plantaciones forestales y el 63% de esa superficie es de propiedad pública. En las extensiones forestales públicas, las responsabilidades de las administraciones consisten en responder a los intereses comunes y en preservar los recursos naturales. Se consideran, entre otros, intereses generales: el mantenimiento de la buena calidad del agua, la pureza del

sistemak, herritarren astialdia eta aldaketa klimatikoarekiko erresilentzia hartzen ditugu.
Gaur egun gure lurraldean baso zein zuhaitz landaketen eremuaren %33 inguru pinu insignisa da. Espezie honen monolaborantzak eta bere ustiaketa intentsiboak, urteren poderioz espeziearen ahultzea ekarri dute. Pinu insignis landaketek duten gaixotasunen zerrenda luzea da eta ezagutu ditugun azkeneko datuen arabera, insignis landaketen portzentai handi bat banda marroi gaixotasunak jota dago. Eremu publikoei dagokienez, pinu insignisen presentzia maila, asko aldatzen da eskualde batetik bestera, baina oso orokortuta dago eremu publikoetan ere, espezie honen egoera sanitario larria, eta espezie honen ustiaketaren ondorioz naturan zein interes orokorreko elementuetan izandako galerak. Baina ez da hau gure basoek daukaten arazo bakarra. Urte luzeetako basogintza desegokiak, etekin ekonomikoa ahalik eta handiena lortzea helburu bakarra izan duenak, oso egoera txarrean utzi ditu gure lurraldea: higadura arrisku handiko eremu zabalak, suteen arrisku altua, zoru mehe eta lehorrak, uren kalitate eskasa, biodibertsitate urria…

Hori dela eta, EH Bildutik uste dugu baso eremu publikoetan interes orokorrari eta natur baliabideen zaintzari erantzungo dion kudeaketa eredua bideratzea premiazkoa dela, eta oso kezkagarritzat hartzen dugu baso eremuaren egoera larri honen aurrean, eskumena duten administrazio publikoek emandako erantzun partziala eta epe motzekoa. Hori dela eta, ondorengo mozioa aurkezten dugu:

1. Busturiko udalak nabarmendu nahi du udalerriko baso eremu publikoen kudeaketa interes publikoan eta baliabide naturalen defentsan oinarritzea ezinbestekoa dela.

2. 2011n Busturiko Udalaren enkarguz egindako baso sistemen diagnostikoan proposatutako neurriak hartuko ditu Udalak, urtero udal aurrekontuetan horretarako partida bat ezarriz, bere zenbatekoa aurrekontuaren %1 baino txikiagoa ez dena inoiz izango. Horretarako, hamar urteko epea izango duen plangintza onartuko du Udalak 2019an, eta zehazki, 2019-2020 urteetan jarraian zerrendatuko direnak burutuko ditu:

- basogintza jarduera egokien kodea egingo du Udalak, eta basoen jabeek eta basogintzan jarduten duten enpresek sina dezaten ahaleginduko da.

- Kalitatezko egurra bertoko espezieekin ekoizteko prest dauden jabeekin talde bat sortu eta aholkularitza eskaini

aire, la estabilidad y fertilidad de la tierra, la competencia contra los incendios, la biodiversidad, los paisajes naturales, los sistemas forestales que mantengan la estructura de la agricultura sostenible, el tiempo libre de los vecinos y la resiliencia en cuanto al cambio climático.
En la actualidad, en nuestro territorio, aproximadamente el 33% de las extensiones de bosques y plantaciones es de pino insignis. El monocultivo de esta especie y las explotaciones intensivas a lo largo de tantos años, han traído como consecuencia la debilidad de esta especie. Es larga la lista de enfermedades contraídas por las plantaciones de pino insignis y, por los últimos datos que conocemos, un gran porcentaje de plantaciones de insignis padece la enfermedad de la banda marrón. En lo que respecta a los terrenos públicos, el nivel de presencia del pino insignis varía mucho de una comarca a otra, pero están muy generalizados también en las zonas públicas los daños ocasionados en la naturaleza o en elementos de interés general a causa del mal estado sanitario de esta especie y de su explotación. Pero éste no es el único problema con el que cuentan nuestros bosques. Los inadecuados trabajos forestales de largos años, que han tenido como único objetivo el lograr un beneficio económico lo más grande posible, han dejado en muy mal estado a nuestro territorio: amplias zonas de peligrosa erosión, alto riesgo de incendios, tierras ligeras y áridas, escasa calidad de las aguas, biodiversidad exigua…
Por esta razón, desde EH Bildu creemos que es indispensable la tramitación de un modelo de gestión que responda a la defensa del interés general en las zonas forestales públicas y de los recursos naturales y también nos resulta preocupante, ante este estado lamentable de las zonas forestales, la respuesta parcial y a corto plazo que dan las administraciones públicas competentes. Por ello, presentamos la siguiente moción:
1. El Ayuntamiento de Busturia quiere manifestar que es imprescindible que la gestión de las extensiones forestales públicas del municipio se base en el interés público y en la defensa de los recursos naturales.
2. Que el Ayuntamiento adoptará las medidas propuestas en el diagnóstico de sistemas forestales confeccionado en 2011, por encargo del Ayuntamiento de Busturia, disponiendo cada año de una partida para este fin en el presupuesto municipal, cuyo importe nunca sería inferior al 1% del presupuesto. Para ello, el Ayuntamiento aprobará en el año 2019 un plan que tendrá una permanencia de diez años y, concretamente, en los años 2019-2020 se llevará a cabo lo que viene a continuación:
- El Ayuntamiento confeccionará un código sobre las

- Erreka eta ibai bazterrak eta edateko ur iturriak babesteko landaketak bultzatu (lurraldea babesteko hitzarmenen bitartez, adibidez).

3. Busturiko udalak dei egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari, herri honen baso eremu publikoei eragiten dien ordenazio zein kudeaketa planen berrazterketarako gunea sortzeko, eskualdeko udalerrien partaidetza bermatuz eta eremu publikoentzako politika iraunkorra diseinatzea helburu.

4. Busturiko udalak dei egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari eskualdean dauden Natura 2000 eremu publikoen kudeaketa aurrera eramateko baliabideak bidera ditzala, natur baliabideen kontserbazioa helburu.

5. Busturiko udalak dei egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari "konifero basoak berreskuratzeko euskal estrategia"-ren baitan iragarritako buruzko informazio gardena eskaini dezala, arriskuen eta kalteen azterketak burutu ditzala, hau da, ingurumen ebaluazio sakona egin dezala eta komunitate zientifikoaren ahotsa eta iritzia kontuan har ditzala, fumigazioari dagokionez, edozein urratsa egin aurretik. Halaber, horien emaitzen berri udalei zein jendarteari eman diezaietela.

6. Busturiko Udalak dei egiten dio Bizkaiko Foru Aldundiari bertoko espezietan oinarritutako basogintza eredua bultza dezan, eta dirulaguntzen politika alda dezan, aurrerantzean kanpoko espezieekin (pinua eta eukaliptua esate baterako) egingo diren landaketak eta gainontzeko lan osagarriak (basobideak zabaldu etab.) ez ditzan diruz lagundu.

EAJko zinegotziek adierazi zuten eragozpenak zituztela proposamenaren bigarren puntuan jasotako konpromisoari dagokionez, gerta baitaiteke Udalak baliabiderik ez izatea edo udal diru-sarrerak beste xede batera bideratu behar izatea, zeinak eragotzi egingo lukeen aipatu konpromisoa betetzea, alegia, aurrekontuaren % 1 baso-zelai sistemen diagnostikoan aurreikusitako neurrietara bideratzea.
EH Bilduko zinegotziek argitu zuten proposamena asmoak agertzeko adierazpena dela, eta, logikoa denez, Udalak ezingo balu ehuneko hori aipatu xedera bideratu, ez legokeela inolako arazorik.
Azalpen honen aurrean, EAJko zinegotziek proposamenaren alde agertzen zirela azaldu zuten.

oportunas actividades forestales y procurará que sea suscrito por los propietarios de los montes como por las empresas que realicen los trabajos forestales.
- Crear una asociación con los propietarios que estén dispuestos a producir madera de calidad con especies autóctonas y prestarles asesoramiento.
- Promover plantaciones para preservar las riberas de los arroyos y ríos y fuentes de agua potable (por ejemplo, mediante convenios para proteger el territorio).
3. El Ayuntamiento de Busturia hace un llamamiento a la Diputación Foral de Bizkaia para crear un espacio con el fin de revisar los planes de ordenación o gestión que afecten a los terrenos forestales públicos de este municipio.
4. El Ayuntamiento de Busturia hace un llamamiento a la Diputación Foral de Bizkaia para que dirija los recursos que vayan a llevar adelante la gestión de los espacios públicos Natura 2000 que se encuentren en la comarca, con el objetivo de conservar los recursos naturales.
5. El Ayuntamiento de Busturia hace un llamamiento a la Diputación Foral de Bizkaia para que ofrezca una información transparente sobre lo comunicado dentro de "la estrategia vasca para recuperar los bosques de coníferas", realice un análisis sobre los peligros y daños, esto es, que haga una evaluación exhaustiva del medio ambiente y que tome en cuenta la voz de la comunidad científica y su opinión en cuanto a la fumigación, antes de poner cualquier medio. Asimismo, que facilite el resultado de los mismos a los ayuntamientos y a la sociedad.
6. El Ayuntamiento de Busturia hace un llamamiento a la Diputación Foral de Bizkaia para que promueva un modelo de trabajo forestal basado en las especies endémicas y que cambie la política de ayudas económicas, para que no se puedan subvencionar en adelante las plantaciones de especies foráneas (pino y eucaliptos, por ejemplo) y resto de trabajos complementarios (abrir caminos forestales, etc.)."
Los concejales de EAJ-PNV manifestaron sus reparos respecto del compromiso existente en el punto segundo de la propuesta, ya que pueden darse situaciones de falta de recursos o necesidad de destinar los ingresos municipales a otras finalidades, que impedirían cumplir ese compromiso de que el 1% del presupuesto se canalice hacia las medidas previstas en el diagnóstico de sistemas forestales.
Los concejales proponentes de EH Bildu aclararon que la propuesta era una declaración de intenciones, y que lógicamente, si el Ayuntamiento estuviese en situación de no poder destinar ese porcentaje, no habría ningún impedimento en que no lo hiciese.
A la vista de esta aclaración, los concejales de EAJ-PNV

manifestaron que respaldaban la propuesta.

**5.- San Kristobal auzoaren berrurbanizazioa.-**

Kontuan hartuta Osoko Bilkurak, 2018ko irailaren 19an, akordio hau egin zuela:

> "2018ko irailaren 10ean egindako Kontratazio Mahaiaren Pro-posamena ikusita, zuzena dela eta behar bezala arrazoitua dagoela ikusirik; lizitatzaileak Kontratisten Erregistroan izena Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 159.4.f. artikulu-ak xedaturiko bi puntuen arabera emanda duela eta behin betiko bermea eratuta dagoela egiaztaturik; Idazkari-Kontu hartzaileak egindako gastu-konpromisoko ikuskapenaren al-deko txostena ikusirik; Udal honetako Osoko Bilkurak onartu zuen, aho batez, eta aipatu Legearen 159. artikuluarekin bat eginik, "San Kristobal auzoko berurbanizazioko lanak" obra-kontratua Construcciones Legasko, S.L. enpresari esleitzea, 153.048,10 €-an, gehi BEZa: 32.140,10 €; guztira: 185.188,00 €."

Kontuan hartuta aipatu kontratua ezin izan dela formalizatu, ezinezkoa izan delako enpresa esleipendunarekin harremanetan jartzea.

Kontuan hartuta, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 36. artikuluaren arabera, botere esleitzaileek egiten dituzten kontratuak formalizatzen direnean perfekzionatzen direla; hortaz, obra-kontratu hau Construcciones Legasko S.L.U. enpresarekin ez da perfekzionatu.

Kontuan hartuta Udal honek jakin duela, berriki, Merkataritza Arloko Bilboko 2. Epaitegiak 2019ko urtarrilaren 7ko Auto bidez borondatezko konkurtsoan deklaratu duela enpresa esleipenduna.

Kontuan hartuta, aipatu Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71.1 c) artikuluaren arabera, konkurtsoan deklaratuta dauden pertsonek ezin dutela kontratatu Lege horren 3. artikuluan jasotako erakundeekin (tartean, Toki Administrazioa).

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen akordio hauek onartzea:

a) Baliogabetzea 2018ko irailaren 18an Construcciones Legasko S.L.U. enpresaren alde egindako esleipena.

b) Obra-kontratua beste enpresa lizitatzaileari, Urre S.A.-ri, esleitzea, 156.171,53 €-an, gehi 32.796,02 €-ko BEZa (guztira, 188.967,55 €).

c) Construcciones Legasko S.L.U.ri jarritako behin betiko fidantza itzultzea.

**5.º.- Reurbanización del barrio de San Cristóbal.-**

Considerando que el Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 19 de septiembre de 2018, adoptó el siguiente acuerdo:

> "Vista la propuesta formulada por la Mesa de Contratación celebrada el 10 de septiembre de 2018 y estimando la misma correcta y debidamente motivada; una vez acreditada la inscripción en el Registro de Contratistas del licitador con los extremos señalados en el artículo 159.4.f.3º de la Ley de Contratos del Sector Público y la constitución de la garantía definitiva; visto el informe favorable de fiscalización del compromiso del gasto emitido por el Secretario-Interventor; el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó, de conformidad con lo establecido en el artículo 159 de la citada Ley, adjudicar el contrato de obras de "Reurbanización del barrio de San Cristóbal", a la empresa Construcciones Legasko, S.L. por un importe de 153.048,10 €, más 32.140,10 € de IVA, totalizando la cantidad de 185.188,00 €."

Considerando que no se ha podido proceder a la formalización del citado contrato, ya que no ha sido posible contactar con la empresa adjudicataria.

Considerando que, según el artículo 36 de la Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público, los contratos que celebren los poderes adjudicadores se perfeccionan con su formalización y que, por lo tanto, este contrato de obras con Construcciones Legasko S.L.U. no ha sido perfeccionado.

Considerando que, recientemente este Ayuntamiento ha tenido conocimiento de que, por Auto de 7 de enero de 2019 del Juzgado de lo Mercantil n.º 2 de Bilbao, dictado en procedimiento número 1149/2018, la empresa adjudicataria ha sido declarada en concurso voluntario.

Considerando que el art. 71.1 c) de la citada Ley de Contratos del Sector Público expresa que no podrán contratar con las entidades previstas en el artículo 3 de la Ley (que incluye a la Administración Local), aquellas personas que se hallen declaradas en concurso.

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó la adopción de los siguientes acuerdos:

a) Revocar la adjudicación realizada el 18 de septiembre de 2018 a favor de Construcciones Legasko S.L.U.

b) Proceder a una nueva adjudicación de las obras a la otra empresa licitadora, Urre S.A., en un importe de 156.171,53 €, más 32.796,02 € de IVA (total 188.967,55 €).
c) Proceder a la devolución de la fianza definitiva depositada por Construcciones Legasko S.L.U.

**6.- Hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiarekin.-**

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen lankidetza administratiborako Hitzarmena onartzea, zeinaren bidez formalizatuko den "Sarbideen berrantolaketa eta trafiko-baretzea BI-2235 errepidean, 43+000 PKrik 43+400 PKra, Busturian" proiektuko obrek kaltetuko dituzten lursailak desjabetzeko espedientea izapidetzeko kudeaketa-mandatua.

**6.º.- Convenio con la Diputación Foral de Bizkaia.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el Convenio de colaboración interadministrativa a través del cual se formaliza la encomienda de gestión para la tramitación del expediente expropiatorio de los terrenos afectados por las obras del proyecto de "Reordenación de accesos y calmado del tráfico en la carretera BI-2235, del P.K. 43+000 al P.K. 43+400 en Busturia".

**7.- Ondasun Higiezinen Zergaren gaineko errekargua.-**

Osoko Bilkurari jakinarazi zitzaion udal-zerbitzuek ezin dutela kudeatu Ondasun Higiezinen Zergaren Ordenantza Fiskal Arautzailearen 11. artikuluan aurreikusitako errekarguaren administrazio-izapidetzea. Zehazki, ezin izan dute eskuratu (Biscaytik Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailak esku hartu badute ere) okupatu gabeko etxebizitzen zerrenda, zerrendetan ageri diren katastro-elementuak ez baitagozkie etxebizitzei, baizik eta beste elementu batzuei, solairuei, garajeei eta trastelekuei, besteak beste. Hala, elementu bakoitza banan-banan eta eskuz aztertu behar da, eta eginbehar hori erabat neurriz kanpokoa da Udalaren administrazio-gaitasunerako; gainera, udal-bulegoek ezingo lukete beren gainerako zereginak bete.
Bestetik, egiteko hori izapidearen lehenengo fasea besterik ez da; izan ere, etxebizitza hutsen errolda osatutakoan, jakinarazpen ziurtatua bidaliko beharko litzaioke jabe bakoitzari, eta haiek udal-bulegoetara etor litezke balizko errekargu-ezarpenaren kontra egitera, enpresa zerbitzu-hornitzaileen fakturak aurkeztuz eta abar. Hala balitz, berriro sortuko lirateke arazo larri baino larriagoak Udalaren administrazio-eginkizuna betetzeko orduan.
Hori guztia ikusita, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen Ondasun Higiezinen Zergaren Ordenantza Fiskal Arautzailearen 11. artikuluan aurreikusitako errekarguaren aplikazioa epe mugagabez etetea.

**7.º.- Recargo sobre el Impuesto de Bienes Inmuebles.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de la imposibilidad de los servicios municipales para poder gestionar la tramitación administrativa del recargo previsto en el artículo 11 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles. En concreto no ha sido posible (a pesar de la intervención de la Fundación Biscaytik y el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia), obtener un listado de viviendas desocupadas, ya que los elementos catastrales que aparecen en los listados no corresponden a viviendas, sino a otros elementos como plantas, garajes, trasteros, etc., lo cual obliga a hacer manualmente un examen individual de cada elemento, convirtiéndose esta tarea en absolutamente desproporcionada para la capacidad administrativa del Ayuntamiento y provocando la paralización de las oficinas municipales.
Por otro lado, este trabajo solamente supone la primera fase del trámite, ya que, una vez establecido el padrón de viviendas vacías, habría que enviar una notificación certificada a cada una de las personas propietarias, y ellos podrían acudir a las oficinas municipales a alegar contra la posible imposición del recargo, aportando facturas de empresas proveedoras de servicios etc., provocando nuevamente en esta segunda fase gravísimos problemas a la labor administrativa del Ayuntamiento.
A la vista de todo ello, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó dejar en suspenso de manera indefinida la aplicación del artículo 11 de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

| 8.- Galde-eskeak.- | 8.º.- Ruegos y preguntas.- |
|---|---|
| Ez ziren egon | No se produjeron. |
| Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta. | Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico. |
| Alkatea/El Alcalde | Idazkaria/El Secretario, |
| Aitor Aretxaga Telletxea | Víctor-Martín Amparan Álvarez |